

# GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2021eko ekainaren 15ean aurkeztuko du

## Artea ikasbide

## *Artea ikasbide*

- Datak: 2021eko ekainaren 15etik irailaren 19ra
  - Kokapena: Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntza-gunea
  - Babeslea: BBK
- 
- Euskal Herriko sei ikastetxe publikotako sei eta hamabi urte bitarteko 108 umek irudimena eta naturaltasuna darien lanak sortu dituzte, eta lanok Museoko Hezkuntza-gunean jarriko dira ikusgai.
  - **Artea kalean** da aurtengo goiburua. *Artea ikasbide* ikasgeletatik irten da, eta jolastoki, eremu ireki, parke, plaza eta lorategiak bereganatu ditu.
  - 1998az geroztik, 4.500 ikaslek baino gehiagok hartu dute parte hezkuntza-programa honetan. Programaren helburua eskola-umeen irudimena eta sormena sustatzea da, esperimintatzen laguntzea eta, aldi berean, eskola-curriculumeko gaiak sendotzea.

Giza gorputzeko digestio-aparatuaren forma duen eskultura erraldoi bat, pintura ibiltariak, hainbat artelan erabiliz inguruko eraikinetan egindako fotomuntaketak, buztinezko eskulturak eta emozioak irudikatzen dituzten ikastetxe bateko jolastokian bideoz grabatutako esku-hartze artistiko bat dira, besteak beste, aurtengoa *Artea ikasbide* programan parte hartu duten artista txikien sorkuntza-lan dibertigarri eta irudimentsuetako batzuk.

Edizio honetan, *Artea ikasbide* kalera irten da. Jolastokiak, parkeak, plazak, ikastetxeen inguruko kaleak eta lorategiak izan dira parte-hartzaileen sormenezko abenturen agertokiak. Artistek lagunduta, eskola-umeek ikastetxeetako jolastokietan esku hartu dute, herrian erabiltzen ez diren tokietan publikitate-goiburuak itsatsi dituzte, kaleetan barrena ibili dira eskultura ibiltariak balira bezala; azken batean, ingurunea ezagutu dute, eta sormena lantzeko egokiak diren eremu osasungarriak aurkitu dituzte.

Zaltoa Ipiña izan da aurtengo edizioan parte hartu duten sei artistetako bat, eta honela hitz egin du Bilboko Pio Baroja ikastetxean egindako lanari buruz: “Hitzetik askoz ere haratago adierazi ahal izatea. Elkar ezagutzea, elkarraldiak zirkulu itxietara mugatzen diren momentuetan. Taldean eraikitzea, geure aztarnaz ahaztu gabe. Norberaren, norbanakoaren ikuspegitik hastea, gure inguruari, gure ikaskideei begiratzeko, elkarrekin bat egin eta hazteko. *Artea ikasbide* beharrezko tresnak eman dizkigu esperimintazioari, gozamenari eta ezagutzari berriro heltzeko, bizitzako garai hauetan, non haurrek batez ere distantzia berriak eta monotonía asimilatu behar izan dituzten”.

Programari amaiera emateko antolatuta den erakusketak BBKren babesarekin, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren laguntza. Ekainaren 15ean zabalduko dituzte ateak, Museoko Hezkuntza-gunean, eta irailaren 19a bitarte egongo da zabalik.

Elsie Ansareo, Ibon Garagarza, Zalao Ipiña, Nerea Lekuona, Manu Muniategiandikoetxea eta Ibon Sáenz de Olazagoitia artistek, Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntzako Zuzendariordetzarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko sei ikastetxetako irakasleekin elkarlanean, ohi baino laburragoa baina beti bezain trinkoa eta sortzailea izan den edizio honetako zortzi tailerrak diseinatu eta dinamizatu dituzte. “Nire aurtengo esperientzia: pizgarria ilusioarentzat, eta arraroa. Pizgarria ilusioarentzat, aukera eman didalako jakin-mina eta gogoia erakutsi dituzten neska-mutil talde batekin harremanetan egoteko, ezagutzeko eta ikasteko gogoarekin, eta niretzat pribilegio bat izan delako transmititzaile-rola betetzea; eta arraroa, hainbeste baldintzatzen gaituzten zirkunstantziengatik eta esperientzia laburra izan delako, horrek ‘azeleragailua zapaltzera’ behartu baikaitu”. Horrela adierazi du Ibon Sáenz de Olazagoitiak programan bizi izandakoa.

Umeez inprobisatu egiten dute, aukeratu egiten dute, esperimentatu egiten dute, baloratu egiten dute, ondo pasatzen dute, huts egiten dute, eta galderak egiten dizkiote etengabe beren buruari. Horixe da *Artea ikasbide* programaren helburua: bitarteko artistikoak erabiliz (argazkilaritza, pintura, eskultura, bideoa eta performancea, adibidez) errealtatea ulertzea eta eskola-curriculum sendotzea. “Artea gauzak beste era batera ulertzen saiatzea eta galderak egitea baino ez da”. Esaldi horrekin laburbiltzen du Manu Muniategiandikoetxeak programa honetako lan egiteko modua.

### **Sei proiektu artistiko original eta txundigarri**

*Artea ikasbide* erakusketan parte hartu duten 108 “artista” txikiak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako sei ikastetxetakoak dira.

“Zientzialariak gara” da Karrantzako Contxa ikastetxeko 1. mailakoek aukeratu zuten goiburua. Olafur Eliasson artistari buruzko erakusketa izan zuten inspirazio-iturri, eta, Ibon Garagarzaren laguntzarekin, artea eta zientzia uztartu zituzten; urarekin nahastean eraldatzen diren materialekin lan egin zuten (esaterako, buztina eta eskaiola), eta hainbat forma eta tamainatako ontziak moldatu zituzten, materialetan meteorologiak dituen ondorioekin esperimentatuz.

Irungo Belaskoenea ikastetxeko 2. mailako ikasleek digestio-aparatuak nola funtzionatzen duen ikertu zuten, eta sortze-prozesuarekin alderatu zuten. Manu Muniategiandikoetxeak lagunduta, digestio-aparatuaren forma duen eskultura erraldoi bat sortu zuten, eta, horretarako, digestioan parte hartzen duten agenteek (nola diren ahoa eta hortzak, adibidez) egiten duten bezalaxe landu zituzten materialak ikastetxearen kanpoko jolastokian.

Bastidako ikastetxe publikoko 3., 4. eta 5. mailako haurrak balio sozial eta zibikoen publizista bihurtu ziren Nerea Lekuona artistaren eskutik. Gizarte-gaiak eztabaidatu zituzten (hala nola generoa, rolak, ingurumenaren zaintza, talde etnikoen arteko elkarbizitza eta pobrezia), eta horien inguruko esaldiak edo mezuak idatzi zituzten. Gero, Bastidako hainbat tokitan itsatsi zituzten, erabiltzen ez diren tokietan edo fatxada zaharretan, kasurako; horrela, oinezkoek ikasleen ideia inspiratzaile eta zibikoak ikusiko zituzten.

Gurutzeta-Barakaldoko Juan Ramón Jiménez ikastetxeko 3. mailako taldeak matematika eta, zehatzago, geometria inguruan nola islatzen den hausnartu zuen, eta irudi geometrikoek espazioan aukera estetiko

ugari dituztela ikusi zuten. Ibon Sáenz de Olazagoitiak lagunduta, argazkiak atera zizkieten ikastetxetik hurbil dauden eraikinei eta beste arkitektura-elementu batzuei, eta proposamen arkitektonikoak marraztu zituzten, figurazioaren ordez elementu geometrikoak erabiliz.

Bilboko Pio Baroja ikastetxeko 3. mailako ikasleek gorputzari eta talde-lanari buruz gogoetatu zuten Zalao Ipiña artistaren laguntzarekin. Umeek eurek margotutako buzoak jantzi zituzten, eta inguruko parke eta kaleetan barrena ibili ziren, gorputzekin horma-irudiak sortzeko tokien bila. "Pintura ibiltari" bihurtu ziren, ingurunea ezagutu zuten, ondo pasatu zuten, eta, aldi berean, harreman eta interakzio aberasgarriak izan zituzten.

Getxoko San Ignacio ikastetxeko 3. eta 4. mailetakoak asmo handiko proiektu batean murgildu ziren: jolastokiko hormetan esku-hartze artistiko bat egitea. Emozio positiboak irudikatu zituzten kolorearen, figuren eta lerroen bidez, eta, horrela, lagunartean egoteko eta gozatzeko eremu bihurtu zuten jolastokia. Elsie Ansareok lagunduta, bi gelek esku-hartze artistiko honen zati bat diseinatu zuten, eta programaren hurrengo edizioan lanean jarraitzeko gogoia erakutsi zuten.

### **Bilbo-New York trukea**

Osasun-krisia dela eta, ezin izan da trukerik egin, programaren egutegiak ez zetozelako bat bi herrialdeetan. Horren ordez, Getxoko San Ignacio ikastetxeko umeek birtualki ezagutu zuten New Yorkeko Guggenheim Museoa. Gabriela O'Leary hezitzaileak *A Year with Children* erakusketa erakutsi zien, haur iparramerikarrek bideo-dei bidez egindakoa.

1999tik, *Artea ikasbide* programak arte-hezkuntzaren bidez Euskal Herriko eta New Yorkeko Lehen Hezkuntzako ikastetxeen artean kultura trukatzeko aukera eman die eskola-umeei, artistei eta irakasleei. Truke hori ez da artistikoa soilik, eskola-umeei beste gauza asko partekatzen baitituzte bertan: kezkak, gustuko gauzak, jolasak eta inguruan duten errealitateko beste edozein alderdi esanguratsu. Talde bakoitzak jakin-min handia izan zuen inguruaren ezaugarriak ezagutzeko eta bi hirietako Guggenheim museoa alderatzeko.

### ***Artea ikasbide 24 urtez***

*Artea ikasbide* programak 24 urte bete ditu, eta poz handiz gainera, Lehen Hezkuntzako 3.400 eskola-ume baino gehiagoren eskola-curriculum indartzen lagundu baitu jarduera artistikoen bidez, eta, aldi berean, munduari ikuspegi kreatibo eta pertsonal batetik so egiten erakutsi baitie, hainbat balio indartuz, hala nola talde-lana, beste kultura batzuekiko bizikidetzeta eta ingurumenarekiko errespetua.

Hiru hizkuntza-ereduetako eta Euskal Herri osoko 154 ikastetxetako Lehen Hezkuntzako 3.346 eskola-umek, 32 artistak eta 238 irakaslek aktiboki hartu dute parte programan 1998tik, Guggenheim Bilbao Museoko hezitzaileekin batera.

Duela 24 urte martxan jarri zen arren Guggenheim Bilbao Museoan, garbi dago *Artea ikasbide* programak oraindik ahalmen handia duela artearen bidez eskola-curriculumak hobetzeko. Hezkuntza-programa hori New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum museoan sortu zen. 1970ean, Natalie K. Lieberman mezenasak ezarri zuen, hiriko Lehen Hezkuntzako eskola publikoetan artea irakasteari utz ez ziezaioten.

**Azaleko irudia:**

Karrantzako Concha ikastetxeko ikasleek egindako lana

**Informazio gehiago:**

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

[media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

[www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia ikusteko, joan hona: [www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)  
(Prensa-eremua).

Prentsa irudiak:

*Artea Ikasbide*

Guggenheim Bilbao Museoa

### Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Musoaren webguneko prentsa eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.es/eu](http://prensa.guggenheim-bilbao.es/eu)) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 359 008, edo posta elektroniko bidez, [media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)

Karrantzako Concha ikastetxeko ikasleak

Irakasleak: Maibe San Nicolás, Ascensión Pérez eta Ibai Esteban

Artista: Ibon Garagarza



Irungo Belaskoenea ikastetxeko ikasleak

Irakasleak: Liber Etxebarria y Eider Amorrortu

Artista: Manu Muniategiandikoetxea



Bastidako Labastida ikastetxeko ikasleak

Irakasleak: Jon Etxebarria eta Daniel Soria

Artista: Nerea Lekuoa



Gurutzeta-Barakaldoko Juan Ramón Jiménez ikastetxeko ikasleak

Irakaslea: Rakel Tejero eta Itxasne Etxebarria

Artista: Ibon Saénz de Olazagoitia



Bilboko Pio Baroja ikastetxeko ikasleak

Irakaslea: Leire Urkidi

Artista: Zaloa Ipiña



Getxoko San Ignacio ikastetxeko ikasleak

Irakaslea: Leyre Fernández

Artista: Elsie Ansareo

